

**Dagoeneko, belaunaldi berriko 850 denda baino gehiago ditu**

## **EROSKI-K JARRAITZEN DU BERE HEDAPEN PLANAREKIN, ETA BESTE SUPERMERKATU BAT INAUGURATU DU ZIZUR NAGUSIAN**

- EROSKIren supermerkatu berri honek 36 lanpostu sorrarazi ditu, 3,4 milioi euro inbertituta, eta bihar irekiko da, ostegunarekin, Nafarroan
- Saltokiak elikagai freskoetan espezialista den gama bat eskaintzen du; tokiko produktuen alde egiten du; dirua aurrezten laguntzen du eguneroko erosketan EROSKI Cluben bitartez; arreta pertsonala ematen du; eta gama zabala du ekoizleen markak marka propioarekin konbinatzen baititu
- Arratsalde honetan, inaugurazio ofizial bat egingo du, eta bertan izango dira herriko alkatea, Jon Goldan, eta Nafarroako Gobernuko Turismo eta Merkataritza Saileko zuzendari nagusia, Maitena Ezkutari

**Zizur Nagusia (Nafarroa), 2020ko irailaren 16a.-** [EROSKI](#)k supermerkatu bat inauguratuko du arratsalde honetan Zizur Nagusian (Nafarroa), Emakumearen Plazako 16.ean. Hala, aurrera doa haren hedapen plana, eta "Zurekin" ereduak dagoeneko belaunaldi berriko 850 denda baino gehiago ditu. Eredu horrek berezitasun hauek ditu: elikagai freskoetan espezialista den gama bat du, tokian tokiko produktuak ditu, eguneroko erosketan dirua aurrezten laguntzen du EROSKI Clubekin, arreta pertsonala ematen du, gama zabala du ekoizleen markak marka propioarekin konbinatzen baititu eta haren jarduera ekojasangarria da ingurumenean bere jarduerak duen inpaktua gutxitzeko berrikuntza teknologikoak baitarabiltza.

EROSKIren supermerkatu berriak EROSKI/Center izena edukiko du, eta 1.300 metro koadroko salmenta aretoa eta 75 aparkaleku izango ditu. Hura martxan jartzeko, 3,4 milioi euroko inbertsioa egin behar izan da, eta 36 lanpostu sorrarazi ditu. Langileek, berriz, 6.400 prestakuntza ordu baino gehiago jaso dituzte, freskoen atalean espezializatze eta bezeroei arretarik eta irtenbiderik onena eskaintzeko. Langile horiek hautatu eta prestatzeko, honako erakunde hauen laguntza izan du: [Zizurko Udalaren](#) gizarte zerbitzua, [Nafarroako Gizarte Ekonomien Enpresa Elkarte](#) eta [Nafarroako Enplegu Zerbitzua](#).

Supermerkatu berriaren ezaugarrien artean, nabarmentzekoa da bezeroaren arreta pertsonalaren alde egindako apustua, okindegia, harategia, urdaitegia eta arrandegia jarri baititu. Hilero-hilero eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

erakusgarririk behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere, zeinak Nafarroan 209.000 bazkide baino gehiago baititu.

### **Tokian tokiko produktuen garrantzi handia**

*"Osasunaren eta elikadura jasangarriagoaren alde hartua dugun konpromisoari dagokion bezala, EROSKIren supermerkatu honen nortasun ikurretako bat tokiko elikagaien sorta zabala da, zeinetan sasoiari sasoi freskoek garrantzi handia hartzen baitute",* esan du EROSKI iparraldean dituen supermerkatuen zuzendariak, Ismene Fulgencio. Lehen seihilekoan %14 igo da EROSKI Nafarroako Foru Komunitatean saltzen dituen tokiko produktuen kopurua. 2.000 produktu inguru saltzen ditu Nafarroako 200 bat ekoizle txikirenak. Ekoizle horiei 50 milioi euro baino gehiagoren erosketak egiten dizkie eper erdiko-luzeko hitzarmenen bitartez.

Produktu dietetikoek eta biologikoek ere beren tokia dute supermerkatu berrian, elikagai joera berri guztiak biltzen dituzten guneekin. Gainera, atal horretan, produktu espezifiko sorta zabal bat dago, elikagai intolerantziak dituztenentzat (glutena, laktosa...) eta gantz, azukre eta gatz gutxi jan behar dutenentzat. Horretaz gainera, lurrindegi-parafarmaziaren atal zabal bat du, eta prestakuntza berezia duen langilea edukiko du bezeroari zainketa pertsonalerako arreta oso eskaintzeko.

Saltokia jasangarriagoa da ingurumen aldetik; izan ere, kontsumitzen duen energia %60 gutxitzen du supermerkatu konbentzional baten aldean, eta eraginkortasun eta ingurumen jasangarritasun baldintza zorrotzak betetzen ditu; horrek indartu egiten du EROSKI taldeak ingurumenarekin eta gizarte ongizatearekin duen konpromisoa. Hotz industrialaren instalazioan aplikatu den berrikuntza teknologikoari esker, instalazio horren kontsumoa murriztu ez ezik, aprobetxatu egiten du hondakin eran sorrarazten duen beroa saltokia berotzeko, eta, hala, handitu egiten da zentroaren energia aurrezpen globala. Gainera, argiterian LED teknologia darabil; horri esker, argiztapena homogenea da eta, ikusmenarentzat oso eroso izateaz gain, ingurumen arriskua eta kontsumoa gutxitzen ditu. Hala berean, zentroak baditu bestelako elementu lagungarriak ere, gehien kontsumitzen diren produktuak kontrolatu, kudeatu eta monitorizatzeko, eta, horrela, zentroaren kudeaketa eraginkor bat egiten da energia aldetik.

Azkenik, instalazioek autokontsumoa darabilte, estalitako panel fotoboltaikoen bitartez; horri esker, sare elektriko tradizionalen egiten den kontsumoa gutxitu ez ezik, klima aldaketaren eragina gutxitzen laguntzen du, eta energia garbiko eredu bateranzko trantsizioa ahalbidetzen du.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



### **Inaugurazio ekitaldi ofiziala arratsalde honetan**

Nahiz eta supermerkatu berriak jendaurrean bihar irekiko dituen ateak (osteguna) 09:00etatik 21:00etara, saltokiaren inaugurazio ofiziala 19:00etan izango da. Bertan izango dira Jon Goldan alkatea eta Nafarroako Gobernuko Turismo eta Merkataritza Saileko zuzendari nagusia, Maitena Ezkutari, EROSKI taldeko ordezkariekin batean.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)